

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako Udalbatzaren 2025eko maiatzaren 14ko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez 2025ean euskara ikasi dutenentzeko dirulaguntza deialdia argitaratzen baita

BDNS (Identif.): 839510.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/839510>.

Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da 2024/2025 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta ostakutakoak izan ezik), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

Onuradunak

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira, besteak beste:

a) Donemiliagako udalerrian eroldaturik egotea, 2024-2025 ikasturtea hasi aurretik. Baldin eta ikasturtean zehar eroldan baja ematen bada, dirulaguntza eroldaturik emandako denboraren proportzioan emango da.

b) Izena ematean 16 urtetik gora izatea.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea.

d) Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Ikastaroetarako baino ez da emango dirulaguntza. Ostaturia eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.

e) Hautatutako ikastaroa euskalduntze edo alfabetatze maila baten parekoa izan behar da gutxienez.

f) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da edo matrikulatutako ikastaroa gainditu.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2025eko maiatzaren 14an egindako bilkuran onetsiak.

Zenbatekoa

Deialdi honen zuzkidura 2.000,00 euro da (335 482000 aurrekontu aplikazioa).

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Donemiliagako udaletxean aurkeztu beharko dira, 2025eko urriaren 31 baino lehen.

Erdoña, 2025eko ekainaren 12a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO